

BIZKAIKO FORU ALDUNDIAREN FORU DEKRETUA. Honen bidez, Bizkaiko Lurralde Historikoan turismoa erakartzeko ekitaldiak egiteko dirulaguntzen programari lotutako oinarri arautzaileak eta lehenengo eta bigarren deialdiak onartzen dituena, 2023ko ekitaldirako.

DECRETO FORAL DE LA DIPUTACIÓN FORAL DE BIZKAIA por el que se aprueban las bases reguladoras y las primeras y segundas convocatorias relacionadas con el programa de subvenciones destinadas a la realización de eventos de atracción turística en el Territorio Histórico de Bizkaia, para el año 2023.

Bizkaiko Foru Aldundiko Ekonomia Sustatzeko Sailaren xedea Bizkaian aberastasuna eta kalitateko enplegua sortzen laguntzea da, Bizkaiko enpresa arloan lehiakortasun iraunkorra eta nazioartekotzea sustatuz eta, aldi berean, gure lurraldearen garapen orekatua erraztuz. Ildo horretan, estrategia integral bat jarri da abian, bost ardatz estrategikotan oinarritua: ekintzailetza eta azelerazioa; berrikuntza eta lehiakortasuna; erakartzea eta interkonexioa; lurralde-oreka, eta talentua eta ezagutza; hori guztia, balio erantsiko zerbitzuak modu eraginkorrean emateko konpromisotik abiatuta.

La misión del Departamento de Promoción Económica de la Diputación Foral de Bizkaia es contribuir a la creación de riqueza y empleo de calidad en Bizkaia, impulsando la competitividad sostenible y la internacionalización en el ámbito empresarial de Bizkaia al tiempo que facilitar el desarrollo equilibrado del Territorio. Para ello se ha puesto en marcha una estrategia integral basada en cinco ejes estratégicos: emprendimiento y aceleración, innovación y competitividad, atracción e interconexión, equilibrio territorial y talento y conocimiento; todo ello desde el compromiso de una prestación eficiente de servicios de valor añadido.

Misio horren esparruan, onartu nahi den

En el marco de esta misión, el decreto





foru-dekretuaren xedea turismoa erakartzeko ekitaldiak egiten laguntzea da, baldin eta:

a) Bizkaiko eskualdeetan eragin sozial eta ekonomikoa sortzen badute.

b) Bilbao Bizkaiaren posizionamendu turistikoa sendotzen laguntzen badute, Estatu mailan zein nazioartekoan.

c) Bizkaiko Lurralde Historikoan bisitarien eta gaualdien kopurua handitzen badute.

foral que se pretende aprobar tiene por objeto apoyar la realización de eventos de atracción turística que:

a) Generen impacto social y económico positivo en las comarcas vizcaínas.

b) Contribuyan a consolidar el posicionamiento turístico de Bilbao Bizkaia tanto a nivel estatal como internacional.

c) Incrementen el número de visitantes y pernoctaciones en el Territorio Histórico de Bizkaia.

Ekonomia Sustatzeko Sailaren 2020-2023 aldiko Dirulaguntzen Plan Estrategikoak dirulaguntzen lerro bat aurreikusten du. Horren helburua interes bereziko ekitaldiak eta jarduketak bultzatu eta babestea da, eta Bizkaiko Lurralde Historikoaren Aurrekontu Orokorretan urtero esleitzen dira horiek gauatzeko behar diren kredituak. Horretarako, beharrezkoa da dirulaguntzoi buruzko araudia ezartzea. Dirulaguntzen lerro horren helburua da Bizkaiarentzat interes berezia duten ekitaldiak bultzatzea eta babestea, eta "Bizkaia, lurralde erakargarri eta konektatua" plan estrategikoaren helburu estrategikoa lortzen laguntzen du, Bilbao-Bizkaia programarako garrantzitsuak diren ekitaldiak babestuz.

2030erako Turismo Estrategiak helburu gisa planteatzen du Bilbao Bizkaia ardatz atlantikoaren nazioarteko erreferente bihurtzea; bakarra da bere nortasun propioagatik, aniztasunagatik eta eraldatzeko duen gaitasunagatik. Horrela, Bilbao Bizkaiak turismoaren garapen jasagarriaren alde egiten du, lurralde-oreka eta pertsonen ongizatea sustatuta, turismo-ekosistema kooperatzaile baten bidez. Hala, Bilbao Bizkaiak bisitariak eta

El Plan Estratégico de Subvenciones 2020-2023 del Departamento de Promoción Económica prevé una línea de subvenciones con destino a impulsar y apoyar eventos y actuaciones de especial interés y en los Presupuestos Generales del Territorio Histórico de Bizkaia se vienen consignando cada año los créditos precisos para hacerlas efectivas, a cuyo efecto se hace necesario establecer su normativa reguladora. Dicha línea de subvenciones tiene como objetivo Impulsar y apoyar eventos de especial interés para Bizkaia y contribuye a alcanzar el objetivo estratégico del citado Plan Estratégico de "Bizkaia, un territorio atractivo y conectado", mediante el apoyo a eventos relevantes para Bilbao Bizkaia.

La estrategia de Turismo 2030 plantea como aspiración alcanzar en el 2030 que Bilbao Bizkaia se posicione como un referente internacional del eje atlántico, único por su identidad propia, diversidad y su capacidad de transformación. Así, Bilbao Bizkaia apuesta por el desarrollo sostenible del turismo, fomentando el equilibrio territorial y el bienestar de las personas mediante un ecosistema turístico cooperador. Con ello, Bilbao





talentua erakartzeko motorra izan nahi du, lurralde osoan inpaktu sozioekonomikoa sortuz.

Bizkaia aspira a ser un motor de atracción de visitantes y de talento, generando impacto socioeconómico en todo el territorio.

Zehazki, helburu hauek lortu nahi dira:

En concreto, se pretende:

- Lurralde osoan zehar banatutako erreferentziazko ekitaldien ekoizpena babestea.

- Apoyar la producción de eventos de referencia distribuidos a lo largo de todo el territorio.

- Ekitaldien tokiko industria indartzea, negozio-aukerak eskainiz.

- Fortalecer la industria local de los eventos ofreciendo oportunidades de negocio.

II

II

Bizkaiko Foru Aldundiari dagokio xedapen honen xede den gaiaren gaineko eskumena, hala ondorioztatzen baita Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Erakundearen Hautaketa, Antolaketa, Araubide eta Funtzionamenduari buruzko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauaren 17.2 artikulua eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 36.1.d) artikulua modu koordinatuan irakurrita. Lege horretan ezartzen denez, foru-aldundien berezko eskumena da garapen ekonomiko eta soziala sustatzeko lankidetzaren ematea, arlo horretan gainerako administrazio publikoek dituzten eskumenekin bat etorritik.

La competencia sobre la materia objeto de la presente disposición corresponde a la Diputación Foral de Bizkaia, tal y como se deduce de la lectura coordinada del artículo 17.2 de la Norma Foral 3/1987, de 13 de febrero, sobre Elección, Organización, Régimen y Funcionamiento de las Instituciones Forales del Territorio Histórico de Bizkaia y el artículo 36.1.d) de la Ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de las Bases de Régimen Local, donde se establece que es competencia propia de las Diputaciones la cooperación en el fomento del desarrollo económico y social de acuerdo con las competencias de las demás Administraciones Públicas en este ámbito.

Ekonomia Sustatzeko Foru Sailaren Egitura Organikoari buruzko Erregelamendua onesten duen Bizkaiko Foru Aldundiaren abenduaren 17ko 207/2019 Foru Dekretuak Ekonomia Sustatzeko Foru Sailari esleitzen dio alderdi hauen arloko jarduna: Bizkaia irekia kanpoan sustatzearekin eta turismoa sustatzearekin zerikusia duten jarduerak guztiak bultzatzea

El Decreto Foral 207/2019, de 17 de diciembre, de la Diputación Foral de Bizkaia, por el que se aprueba el Reglamento de Estructura Orgánica del Departamento de Promoción Económica, asigna al Departamento de Promoción Económica la actuación en el impulso y desarrollo de todas las actividades que tengan relación con la promoción de la





eta garatzea, Bizkaia nazioartean aukeren lurralde gisa kokatzea, betiere inbertsioak, talentua, bisitariak eta ekitaldiak erakartzeko eta Bizkaia Bizkairako lehentasunezko interesa duten nazioarteko sareetan parte har dezan sustatzeko.

imagen de Bizkaia en el exterior y la promoción turística, el posicionamiento de Bizkaia a nivel internacional como territorio de oportunidades para la atracción de inversiones, de talento, visitantes y eventos y promover la participación de Bizkaia en redes internacionales de interés prioritario para Bizkaia.

III

Foru-dekretu honek betetzen ditu erregulazio onaren printzipioak, zeinak aurreikusten baitira Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 129. artikuluan eta Bizkaiko Foru Aldundiaren ekainaren 15eko 87/2021 Foru Dekretuaren 3. artikuluan (dekretu horren bidez, Bizkaiko Foru Aldundian xedapen orokorrak egiteko prozedura arautzen da; manuok bete egin dira xedapena egin eta izapidetzeko orduan, eta txosten hauek eman dira:

1. Genero-inpaktuaren aurretiazko ebaluazioa
2. Ekonomia Sustatzeko Sailaren txosten juridikoa.
3. Generoaren eraginaren aurretiazko ebaluazioari buruzko txostena.
4. Memoria ekonomiko-administratiboa eta erregulazio onaren printzipioei buruzkoa.
5. Kontrol ekonomikoari buruzko txostena.
6. Legezkotasunari buruzko txostena.

Era berean, genero-ikuspegia jaso da foru-dekretu hau prestatzeko orduan, kontuan hartuta zer xedatzen den arau hauetan: martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuak onartu duen emakumeen eta

III

El presente decreto foral responde a los principios de buena regulación previstos en los artículos 129 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas y 3 del Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 87/2021, de 15 de junio, por el que se regula el procedimiento de elaboración de disposiciones de carácter general en la Diputación Foral de Bizkaia, cuyas disposiciones se han observado en su elaboración y tramitación, habiéndose emitido los siguientes informes:

1. Evaluación preliminar del impacto de género.
2. Informe jurídico del Departamento de Promoción Económica.
3. Informe de Evaluación Previa del Impacto en Función del Género.
4. Memoria económico-administrativa y de principios de buena regulación.
5. Informe de control económico.
6. Informe de legalidad.

Asimismo, se incorpora la perspectiva de género en la elaboración del presente decreto foral, en cumplimiento del texto refundido de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y Vidas Libres de





gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Araua eta Bizkaiko Foru Aldundiaren azaroaren 19ko 141/2013 Foru Dekretua, zeinaren bidez generoaren eraginaren aurretiazko ebaluazioa egiteko jarraibideak ezartzen baitira (ebaluazio hori emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bateginan dago aurrez ikusita). Illo horretan, lehen adierazi den bezala, foru-dekretu honen izapidetzean generoaren araberako eraginaren aurretiazko ebaluazioari buruzko txostena sartu da.

Era berean, kontuan hartu da zer ezarrita dagoen hala maiatzaren 28ko 63/2019 Foru Dekretuan (haren bidez, Bizkaiko Foru Aldundiaren, haren erakunde autonomoen eta foru-sektore publikoaren jardun-eremuan hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak ezartzen dira), nola Bizkaiko Foru Aldundiaren dirulaguntzetarako prozeduretan klausula sozialak, ingurumenekoak eta beste politika publiko batzuei buruzkoak sartzeko gidan (Bizkaiko Foru Aldundiaren otsailaren 27ko 16/2018 Foru Dekretuaren bidez onetsi zen).

IV

Oinarri hauetako I. Tituluko I. kapituluaren aurreikusitako dirulaguntzak -1. atala- ez dira estatuko laguntzak, arlo honen erakunde onuradunek ez baitute jardura ekonomikorik, hau da, ez dute merkatu jakin batean ondasunak edo zerbitzuak eskaintzeko jarduerarik burutzen. Horrenbestez, lehia faltsutzen edo faltsutzearekin mehatxatzen ez dute, ez

Violencia Machista contra las Mujeres aprobado por el Decreto Legislativo 1/2023 de 16 de marzo, de la Norma Foral 4/2018, de 20 de junio para la Igualdad de Mujeres y Hombres y del Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 141/2013, de 19 de noviembre, por el que se fijan las Directrices en las que se recogen las pautas a seguir para la realización de la evaluación previa del impacto en función del género prevista en el texto refundido de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y Vidas Libres de Violencia Machista contra las Mujeres. En este sentido, en la tramitación de este decreto foral se incorpora, como se ha indicado previamente, el Informe de Evaluación Previa del Impacto en función del género.

Igualmente se ha tenido en cuenta lo dispuesto en el Decreto Foral 63/2019, de 28 de mayo, por el que se establecen los criterios de uso de las lenguas oficiales en el ámbito de actuación de la Diputación Foral de Bizkaia, de sus organismos autónomos y del sector público foral y lo dispuesto en la "Guía para la inclusión de cláusulas sociales, medioambientales y relativas a otras políticas públicas en los procedimientos de subvenciones de la Diputación Foral de Bizkaia" aprobada por Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 16/2018, de 27 de febrero.

IV

Las subvenciones previstas, en el capítulo I del Título I -área 1- de estas bases no constituyen ayudas de estado ya que las entidades beneficiarias de esta área no ejercen una actividad económica, definida ésta como cualquier actividad consistente en ofrecer bienes o servicios en un determinado mercado, dado que no falsean o amenazan con falsear la





dira onuragarriak enpresa batentzat, eta ez diete mesederik egiten ekoizpen edo enpresa jakin batzuei, beste batzuen kaltetan.

Aitzitik, oinarri hauetako I. Tituluko II. kapituluaren arautzen diren dirulaguntzak -2. atala- estatuko diru-laguntzak dira; izan ere, erakunde onuradunek jarduera ekonomiko bat egiten dute, alegia, merkatu jakin batean ondasunak edo zerbitzuak eskaintzeko jardura bat. Hala ere, salbuetsirik daude aurretik Europako Batzordeari jakinarazi behar izatetik, dela bide 2013ko abenduaren 18ko 1407/2013 (EB) Erregelamendua, Batzordearena, zeinak zehazten baitu de *minimis* laguntzei nola aplikatu behar zaizkien Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. eta 108. artikulua; eta Batzordearen 2020ko uztailaren 2ko 2020/972 (EB) Erregelamendua, zeinaren bidez aldatzen baita 1407/2013 (EB) Erregelamendua, haren luzapenari dagokionez.

V

Foru Administrazioak ematen dituen dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 16.1. artikulua ahalmena ematen dio Bizkaiko Foru Aldundiari dirulaguntzen emakida arautuko duten oinarriak onesteko foru-dekretu bidez, aurretik zerbitzu juridikoak txostena emanda; eta Dirulaguntzen Erregelamendua onetsi zuen Bizkaiko Foru Aldundiaren 2010eko martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren 41.1 artikulua aukera ematen du oinarri arautzaileak eta deialdia batera izapidetzeko, eta ezartzen du Bizkaiko Foru Aldundiaren Gobernu Kontseiluak duela haiek onesteko ahalmena.

competencia, no suponen un beneficio para una empresa y no favorecen a determinadas producciones o empresas en detrimento de otras.

Sin embargo, las subvenciones cuyo régimen se establece, en el capítulo II del Título I de las bases -área 2-, constituyen ayudas de estado ya que las entidades beneficiarias ejercen una actividad económica, definida ésta como cualquier actividad consistente en ofrecer bienes o servicios en un determinado mercado. No obstante, están exceptuadas de la obligación de notificación previa a la Comisión Europea en virtud del Reglamento (UE) n.º 1407/2013, de la Comisión, de 18 de diciembre de 2013, relativo a la aplicación de los artículos 107 y 108 del Tratado de Funcionamiento de la Unión Europea a las ayudas de *minimis* y del Reglamento (UE) n.º 2020/972 de la Comisión de 2 de julio de 2020, por el que se modifica el Reglamento (UE) n.º 1407/2013 en lo que respecta a su prórroga.

V

El artículo 16.1 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral habilita a la Diputación Foral de Bizkaia para aprobar las bases reguladoras de la concesión de subvenciones mediante decreto foral, previo informe del servicio jurídico; y el artículo 41.1 del Decreto Foral 34/2010, de 23 de marzo, por el que se aprueba el Reglamento de Subvenciones de desarrollo de la Norma Foral 5/2005 establece la posibilidad de la tramitación conjunta de las bases reguladoras y la convocatoria, residiendo en el Consejo de Gobierno de la Diputación Foral de





Bizkaia la competencia para su aprobación.

Halaber, Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Erakundeen Hautapen, Antolaketa, Araubide eta Funtzionamenduari buruzko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauaren 39.k) artikulua ezartzen du foru-diputatuen eskumena dela, besteak beste, Foru Aldundiari proposamenak aurkeztea haien sailtako gaiei buruzko foru-dekretuen proiektuak onets ditzan. Horrela, bada, kasu honetan Ekonomia Sustatzeko foru diputatuari dagokio foru-dekretuaren proiektu hau proposatzea.

Hori dela bide, Ekonomia Sustatzeko foru diputatuak proposatuta, eta Bizkaiko Foru Aldundiak 2023ko apirilaren 4ko bileran aztertu ondoren, honako hau

Asimismo, el artículo 39.k) de la Norma Foral 3/1987, de 13 de febrero, sobre Elección, Organización y Funcionamiento de las Instituciones Forales del Territorio Histórico de Bizkaia determina que compete a los diputados forales y a las diputadas forales proponer a la Diputación Foral de Bizkaia, para su aprobación, los proyectos de decreto foral en las materias propias de su Departamento. Así, en el presente caso corresponde a la diputada foral de Promoción Económica proponer este proyecto de decreto foral.

En su virtud, a iniciativa de la diputada foral de Promoción Económica, y previa deliberación de la Diputación Foral de Bizkaia en su reunión de 4 de abril de 2023.

XEDATZEN DUT:

Artikulu bakarra. *Oinarri arautzaileak eta lehenengo eta bigarren deialdiak onartzea.*

2023ko urterako Bizkaiko Lurralde Historikoan turismoa erakartzeko ekitaldiak egiteko dirulaguntza-programari lotutako oinarri arautzaileak eta lehenengo eta bigarren deialdiak onartzen dira, eta honen ondoren doa haren testua.

Xedapen gehigarri bakarra. *Izaera pertsonaleko datuen babesa.*

DISPONGO:

Artículo único. *Aprobación de bases reguladoras y primera y segunda convocatoria.*

Se aprueban las bases reguladoras y las primeras y segundas convocatorias relacionadas con el programa de subvenciones destinadas a la realización de eventos de atracción turística en el territorio histórico de Bizkaia para el año 2023 cuyo texto se incluye a continuación.

Disposición adicional única. *Protección de datos de carácter personal.*





1. Interesdunak ematen dituen datuak foru-dekretu honetatik eratoritzen diren prozedurak kudeatzeko erabiliko dira, kontuan harturik zer ezartzen den honako xedapen hauetan: 2016/679 Erregelamendua (EB), Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27koa, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa; 95/46/EE Zuzentaraua (datuen babesari buruzko Erregelamendu orokorra) baliogabetzen duena; eta 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5koa, Datu Pertsonalen Babesari eta eskubide digitalen bermeari buruzkoa.

2. Datu horiek inola ere ez dira erabiliko, eta ez zaizkie hirugarren batzuei lagako, interesdunak argi eta garbi ados dagoela adierazi ezean edo goian aipaturiko araudian ezartzen diren kasuetan izan ezik.

3. Edozein bide erabiliz eskaerak egin, eta interesdunek administrazio publikoen eskuetan dauden datu pertsonalak ematen badituzte, eskaeraren hartzaila den organoak beharrezko egiaztatze-lanak egiteko aukera izango du, dituen eskumenen barruan, datuak benetakoak direla egiaztatzeko.

4. Araudi horretan xedatzen dena betetzeko, interesdunak honako eskubide hauek baliatu ahal izango ditu datuen tratamenduaren arduradunaren aurrean: datuetan sartzeko, datuak zuzentzeko, ezerezteko ("ahaztua izateko eskubidea"), aurkartzeko, haien tratamendua mugatzeko eta datuok eramangarri izateko eskubideak, bai eta tratamendu automatizatuan soilik oinarrituriko erabakien xede ez izatekoa (barne harturik

1. Los datos aportados por la persona interesada se utilizarán para la gestión de los procedimientos que se deriven del decreto foral, de acuerdo con lo previsto en el Reglamento (UE) n.º 2016/679 del Parlamento Europeo y del Consejo de 27 de abril de 2016 relativo a la protección de las personas físicas en lo que respecta al tratamiento de datos personales y a la libre circulación de estos datos y por el que se deroga la Directiva 95/46/CE (Reglamento general de protección de datos) y en la Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de protección de datos personales, y garantía de derechos digitales que adapta y completa la normativa europea.

2. En ningún caso los referidos datos serán objeto de tratamiento o de cesión a terceras partes, si no es con el consentimiento inequívoco de la persona afectada, o en los supuestos previstos en la normativa antes indicada.

3. Cuando se formulen las solicitudes por cualquier medio en las que la persona interesada declare datos personales que obren en poder de las Administraciones Públicas, el órgano destinatario de la solicitud podrá efectuar en el ejercicio de sus competencias las verificaciones necesarias para comprobar la exactitud de los datos.

4. En cumplimiento de lo dispuesto en la citada normativa, la persona interesada podrá ejercer ante la responsable del tratamiento sus derechos de acceso, rectificación, supresión ("derecho al olvido"), oposición, limitación del tratamiento, a la portabilidad de sus datos, y a no ser objeto de una decisión basada únicamente en el tratamiento automatizado, incluida la elaboración de perfiles, que produzca efectos jurídicos





profilen sorrera) ere, baldin eta erabakiak eragin juridikoak badakarzkio edo, modu bertsuan, beragan eragin nabarmenik badu. Era berean, edozein momentutan errebokatu ahal izango du emandako baimena. Horrez gain, eskubidea du erreklamazioa jartzeko Datuen Babesaren Kontrol Agintaritzan. Gai honi buruzko informazio guztia Bizkaiko Foru Aldundiaren webgunean dago eskuragarri, datuen babesari buruzko atalean (<https://web.bizkaia.eus/eu/datuen-babesa>).

en él o le afecte significativamente de modo similar. De igual modo, podrá revocar el consentimiento prestado en cualquier momento. También dispone del derecho a presentar una reclamación ante la Autoridad de Control de Protección de Datos, pudiendo ampliar esta información en el apartado dedicado a la protección de datos de la página web institucional de la Diputación Foral de Bizkaia (<https://web.bizkaia.eus/es/proteccion-de-datos>).

Xedapen iragankor bakarra. *Bizkaiko Foru Aldundiaren maiatzaren 3ko 64/2022 Foru Dekretua aplikatzea. Dekretu horren bidez, Bizkaiko Lurralde Historikoan 2022ko ekitaldirako erakarpen turistikoko ekitaldiak egiteko dirulaguntzen programaren oinarri arautzaileak eta deialdia onartu ziren.*

Disposición transitoria única. *Aplicación del Decreto Foral 64/2022, de 3 de mayo, de la Diputación Foral de Bizkaia por el que se aprueban las bases reguladoras y convocatoria del programa de subvenciones destinadas a la realización de eventos de atracción turística en el Territorio Histórico de Bizkaia para el ejercicio 2022.*

Xedapen iragankor honetan adierazitako araudiaren babesean aurkeztutako eskaeren ondoriozko itzultze-prozedurak, zehapen-prozedurak, errekurtsoak, berrikuspenak eta bestelako gorabeherak foru-dekretu horretan ezarritakoaren arabera ebatziko dira.

Los procedimientos de reintegros, procedimientos sancionadores, recursos, revisiones y cualquier otro incidente derivado de solicitudes presentadas al amparo de la regulación indicada en esta disposición transitoria serán resueltos conforme a lo establecido en dicho decreto foral.

Xedapen indargabetzaile bakarra. *Indargabetzea Bizkaiko Foru Aldundiaren maiatzaren 3ko 64/2022 Foru Dekretua, 2022ko ekitaldirako Bizkaiko Lurralde Historikoan erakarpen turistikoko ekitaldiak egiteko dirulaguntzen programaren oinarri arautzaileak eta deialdia onartzen dituen.*

Disposición derogatoria única. *Derogación del Decreto Foral 64/2022, de 3 de mayo, de la Diputación Foral de Bizkaia por el que se aprueban las bases reguladoras y convocatoria del programa de subvenciones destinadas a la realización de eventos de atracción turística en el Territorio Histórico de Bizkaia para el ejercicio 2022.*

Foru-dekretu hau indarrean jartzen denean, indargabeturik geratuko da

A la entrada en vigor del presente decreto foral, queda derogado el Decreto





maiatzaren 3ko 64/2022 foru-dekretua, zeinaren bidez onartzen baitira Bizkaiko Lurralde Historikoan turismoa erakartzeko ekitaldiak egiteko dirulaguntzen programaren oinarri arautzaileak eta deialdia onartzen dituen, 2022ko ekitaldirako ; hala ere, aplikatu daiteke beraren indarraldiaren barruan sortutako egoeretan, xedapen iragankor bakarrean aurreikusitakoarekin bat.

Foral 64/2022, de 3 de mayo, por el que se aprueban las bases reguladoras y la convocatoria del programa de subvenciones destinadas a la realización de eventos de atracción turística en el Territorio Histórico de Bizkaia para el ejercicio 2022, sin perjuicio de su aplicación a las situaciones creadas bajo su vigencia en los términos previstos en la Disposición transitoria única.

Azken xedapenetako lehena. *Ahalmenak eskuordetzea.*

Disposición final primera. *Delegación de facultades.*

1. Ahalmena ematen zaio Ekonomia Sustatzeko foru diputatuari, foru-dekretu honetan xedatzen dena garatu, betearazi eta aplikatzeko beharrezko xedapen guztiak eman ditzan, baita dirulaguntzen emakida ere.

1. Se faculta a la diputada foral de Promoción Económica para dictar cuantas disposiciones resulten procedentes en orden al desarrollo, ejecución y aplicación de lo previsto en el presente decreto foral, incluida la concesión de subvenciones.

2. Halaber, Ekonomia Sustatzeko foru diputatuari ahalmena ematen zaio, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 32.4 artikuluan jasotako kasua gertatzen bada foru-agindu bidez eskabideak aurkezteko epea luzatu edo ixteko.

2. Asimismo, se faculta a la diputada foral de Promoción Económica para acordar la ampliación o cierre del plazo de presentación de solicitudes, en caso de que se dé el supuesto previsto en el artículo 32.4 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas o que se agote o incremente la dotación presupuestaria.

3. Era berean, Ekonomia Sustatzeko foru diputatuari ahalmena ematen zaio beste dirulaguntza-deialdi batzuk egiteko, aurrekontuko diru-hornidura amaitu ezean.

3. Asimismo, se faculta a la diputada foral de Promoción Económica para acordar la apertura de nuevas convocatorias de subvenciones para el supuesto de no agotarse las disponibilidades presupuestarias.

Azken xedapenetatik bigarrena. *Indarrean jartzea.*

Disposición final segunda. *Entrada en vigor.*

1. Foru Dekretu honen bidez onetsitako oinarri arautzaileak indarrean jarriko dira

1. Las bases reguladoras aprobadas por este decreto foral entrarán en vigor, una





“Bizkaiko Aldizkari Ofizialean” argitaratu ondoren. Zehazki, aldizkari horretan argitaratzen denean batera onetsi den deialdiaren zatia.

vez publicadas en el “Boletín Oficial de Bizkaia”, el día que se publique en dicho boletín el extracto de la convocatoria que se aprueba conjuntamente.

2. Foru Dekretu honen bidez onetsitako deialdiek ondorioak izango dituzte deialdien zatia “Bizkaiko Aldizkari Ofizialean” argitaratzen den egunetik aurrera.

2. Las convocatorias aprobadas por este decreto foral tendrán efectos desde el día que se publiquen en el “Boletín Oficial de Bizkaia” el extracto de las convocatorias.

Bilbon, 2023ko apirilaren 4an

Dado en Bilbao, a 4 de abril de 2023

Ekonomia Sustatzeko foru diputatua/La diputada foral de Promoción Económica.

AINARA BASURKO URKIRI

Ahaldun Nagusia/El Diputado General. UNAI REMENTERIA MAIZ.





2023KO EKITALDIRAKO BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOAN TURISMOA ERAKARTZEKO EKITALDIAK EGITEKO DIRULAGUNTZEN PROGRAMARI LOTUTAKO OINARRI ARAUTZAILEAK ETA LEHENENGO ETA BIGARREN DEIALDIAK

BASES REGULADORAS Y PRIMERAS Y SEGUNDAS CONVOCATORIAS RELACIONADAS CON EL PROGRAMA DE SUBVENCIONES, DESTINADAS A LA REALIZACIÓN DE EVENTOS DE ATRACCIÓN TURÍSTICA EN EL TERRITORIO HISTÓRICO DE BIZKAIA PARA EL EJERCICIO 2023

Aurkibidea:

Índice:

I. TITULUA Xedapen orokorrak

TÍTULO I Disposiciones generales

1. oinarria. *Dirulaguntzaren xedea.*

Base 1. *Objetivo de la subvención.*

2. oinarria. *Definizioak.*

Base 2. *Definiciones.*

I. KAPITULUA 1. arloa: Estatuaren laguntzak ez diren dirulaguntzak (No minimis)

CAPÍTULO I Área 1: Subvenciones que no constituyen ayudas de estado (No minimis)

3. oinarria. *Dirulaguntzaren onuradunak.*

Base 3. *Beneficiarias de la subvención.*

4. oinarria. *Diruz lagundu daitekeen egitatea.*

Base 4. *Hecho subvencionable.*

5. oinarria. *Dirulaguntza jaso dezaketen gastuak.*

Base 5. *Gastos subvencionables.*

6. oinarria. *Dirulaguntzen zenbateko indibidualizatua.*

Base 6. *Cuantía individualizada de las ayudas.*

II. KAPITULUA 2. arloa: Estatuaren laguntzak diren dirulaguntzak (Minimis)

CAPÍTULO II Área 2: Subvenciones que constituyen ayudas de estado (Minimis)

7. oinarria. *Dirulaguntzaren onuradunak.*

Base 7. *Beneficiarias de la subvención.*

8. oinarria. *Diruz lagundu daitekeen egitatea.*

Base 8. *Hecho subvencionable.*

9. oinarria. *Dirulaguntza jaso dezaketen gastuak.*

Base 9. *Gastos subvencionables.*

10. oinarria. *Dirulaguntzen zenbateko. Indibidualizatua.*

Base 10. *Cuantía individualizada de las ayudas.*

III. KAPITULUA Aurrekontuko kredituak

CAPÍTULO III Créditos presupuestarios

11. oinarria. *Aurrekontuko zuzkidura.*

Base 11. *Dotación presupuestaria.*





II. TITULUA Araubide juridikoa

TÍTULO II Régimen jurídico

12. oinarria. Araubide juridikoa.

Base 12. Régimen jurídico.

13. oinarria. Organo eskudunak.

Base 13. Órganos competentes.

14. oinarria. Arau-haustek eta zehapenak.

Base 14. Infracciones y sanciones.

15. oinarria. Ez-betetzea eta dirulaguntza itzultzea.

Base 15. Incumplimiento y reintegro.

16. oinarria. Dirulaguntza erakunde onuradunaren ekimenez itzultzea.

Base 16. Devolución de la subvención a iniciativa de la entidad beneficiaria.

III. TITULUA Dirulaguntzak emateko prozedura

TÍTULO III Procedimiento de concesión

17. oinarria. Dirulaguntza eskabideak aurkezteko lekua, era eta epea, eta ondorengo izapideak.

Base 17. Lugar, forma y plazo en que deben presentarse las solicitudes de ayuda y subsiguientes trámites.

18. oinarria. Eskabidea egiteko behar den dokumentazioa.

Base 18. Documentación necesaria para la solicitud.

19. oinarria. Eskabidea zuzentzea edo hobetzea.

Base 19. Subsanación o mejora de la solicitud.

20. oinarria. Baloraziorako dokumentazioa.

Base 20. Documentación para la valoración.

21. oinarria. Ekitaldia egin aurreko dokumentazioa.

Base 21. Documentación previa a la realización del evento.

22. oinarria. Dirulaguntza emateko prozedura.

Base 22. Procedimiento de concesión.

23. oinarria. Eskabideak baloratzeko irizpideak.

Base 23. Criterios de valoración de las solicitudes.

24. oinarria. Ebazpena.

Base 24. Resolución.

25. oinarria. Errekurtsoak.

Base 25. Recursos.

26. oinarria. Dirulaguntzari uko egitea.

Base 26. Renuncia a la subvención.

27. oinarria. Dirulaguntza emateko ebazpena aldatzea.

Base 27. Modificación de la resolución de concesión.

28. oinarria. Emandako dirulaguntzen

Base 28. Publicidad de las subvenciones





publizitatea.

concedidas.

29. oinarria. Onuradunak eman zaion dirulaguntzaren publizitatea egitea.

Base 29. Difusión de la subvención concedida por la persona beneficiaria.

30. oinarria. Jakinarazpen elektronikoa.

Base 30. Notificación electrónica.

IV. TITULUA Gauzatzea, justifikatzea eta kontrola

TÍTULO IV Ejecución, justificación y control

31. oinarria. Gauzatzeko epea.

Base 31. Plazo de ejecución.

32. oinarria. Justifikazio-epea.

Base 32. Plazo de justificación.

33. oinarria. Azpikontratazioaren baldintzak.

Base 33. Condiciones de subcontratación.

34. oinarria. Dirulaguntzak justifikatzea.

Base 34. Justificación de las subvenciones.

35. oinarria. Dirulaguntza ordaintzea.

Base 35. Pago de la subvención.

36. oinarria. Laguntzak metatzea.

Base 36. Acumulación de ayudas.

37. oinarria Laguntzen bateragarritasuna.

Base 37. Compatibilidad de las ayudas.

38. oinarria. Pertsona onuradunen beste betebehar batzuk.

Base 38. Otras obligaciones de las personas beneficiarias.





I. TITULUA

Xedapen orokorrak

1. oinarria. *Dirulaguntzaren helburua.*

1. Dirulaguntzen programa honen bidez, turismoa erakartzeko ekitaldiak egiten lagundu nahi da, honako helburu hauek lortzeko:

a) Bizkaiko eskualdeetan eragin sozial eta ekonomikoa sortzea.

b) Bilbao Bizkaiaren posizionamendu turistikoa sendotzen laguntzea, estatu mailan zein nazioartekoan.

c) Bizkaiko Lurralde Historikoan bisitarien eta gaudien kopurua handitzea.

2. Programa hau bi jardun-arloren bitartez gauzatuko da:

a) 1. arloa: Estatuaren laguntzak ez diren dirulaguntzak (No *minimis*)

b) 2. arloa: Estatuaren laguntzak diren dirulaguntzak (*Minimis*)

2. oinarria. *Definizioak.*

Oinarri hauen eta lehenengo eta bigarren deialdien ondorioetarako, honela ulertu behar da:

Kudeaketa turistikoko erakundeak: kudeaketa turistikoko erakundeak dira Bizkaiko Foru Aldundiaren lidergopean eta hark sustatzen dituen jarduketa-planen

TÍTULO I

Disposiciones generales

Base 1. *Objetivo de la subvención.*

1. Mediante este programa de subvenciones se pretende apoyar la realización de eventos de atracción turística para alcanzar los siguientes objetivos:

a) Generar impacto social y económico positivo en las comarcas vizcaínas.

b) Contribuir a consolidar el posicionamiento turístico de Bilbao Bizkaia tanto a nivel estatal como internacional.

c) Incrementar el número de visitantes y pernoctaciones en el Territorio Histórico de Bizkaia.

2. La puesta en práctica de este programa se llevará a cabo a través de dos áreas de actuación:

a) Área 1: Subvenciones que no constituyen ayudas de estado (No *minimis*)

b) Área 2: Subvenciones que constituyen ayudas de estado (*Minimis*)

Base 2. *Definiciones.*

A los efectos de las presentes bases y primera y segunda convocatoria se entenderá por:

Entes de gestión turística: Son entes de gestión turística aquellas organizaciones que impulsan el desarrollo turístico sostenible del destino Bilbao Bizkaia, bajo





arabera Bilbao-Bizkaia jomugaren garapen turistiko jasangarria bultzatzen duten erakundeak. Eskualde- edo udalerrimailakoak izan daitezke.

Eskualde-mailako kudeaketa turistikoko erakundeak: jarduketa-eremutzat eskualdea edo udalaz gaindiko gunea duten erakundeak, interes eta xede turistikoez administrazio-mugak gainditzen dituztelako. Bilbao-Bizkaian garapen turistiko jasangarria bermatzeko, ente horiek lurraldeko udalerridesberdinetan turismoaren kudeaketa koordinatu behar dute eta langile prestatuak izango dituzte, jardueraturistikokoak garatzeko aurrekontuaz gain. Landa-turismo jasangarria sustatu nahi da, Landa-Ingurunearen Garapenaren ekainaren 30eko 7/2022 Legearen 5. artikuluan ezarritako landa-garapeneko politiken helburuekin bat etorriz —B) apartatuko VI. epigrafea, Euskal Autonomia Erkidegoko landa-eremuetan jarduera ekonomikoa sustatzea eta dibertsifikatzea— eta 6.3. Artikuluan jasotako landa-ingurunezko erakunde-politiken helburu sektorialekin bat etorriz —D) apartatuko VI. epigrafea, landa-ingurunearen ehun ekonomikoa dibertsifikatzeari eta enplegua sortzeari dagokienez—.

Udal-mailako kudeaketa turistikoko erakundeak: Bizkaiko udalak, baldin eta Bilbao-Bizkaia jomugan garapen turistikorako kudeaketa-egiturak badituzte eta eskualde-mailako kudeaketa-erakunde bakar batean ere sartuta ez badaude. Kudeaketa turistikoko udal-ente horiek Bilbo Metropolitarraren ingurunean daude. Urduña, Getxo, Santurtzi, Portugalete, Barakaldo eta Sestao dira.

el liderazgo de la Diputación Foral de Bizkaia y de los planes de actuación que ésta promueva. Pueden ser de ámbito comarcal o de ámbito municipal.

Entes de gestión turística de ámbito comarcal: Entidades cuyo ámbito de actuación es comarcal o supramunicipal, entendiendo que los intereses y fines de carácter turístico superan los límites administrativos. Con el fin de garantizar un desarrollo turístico sostenible en Bilbao Bizkaia, estos entes deben coordinar la gestión del turismo de los distintos municipios del Territorio y han de contar con personal cualificado, así como con presupuesto para el desarrollo de actividades turísticas. Se pretende fomentar el turismo rural sostenible de conformidad con los objetivos de las políticas de desarrollo rural establecidas en el artículo 5 Ley 7/2022, de 30 de junio, de Desarrollo Rural -epígrafe VI del ámbito B) fomento y la diversificación de la actividad económica en las zonas rurales del País Vasco- y los objetivos sectoriales de las políticas institucionales en el medio rural establecidas en el artículo 6.3 -epígrafe VI del apartado D) en materia de diversificación del tejido económico del medio rural y la creación de empleo-.

Entes de gestión turística de ámbito municipal: Ayuntamientos de Bizkaia que cuentan con estructuras de gestión para el desarrollo turístico en destino Bilbao-Bizkaia y que no están encuadrados en ninguno de los entes de gestión de ámbito comarcal. Estos entes de gestión turística municipal, además de Orduña, pertenecen al entorno metropolitano de Bilbao. Son Orduña, Getxo, Santurtzi, Portugalete, Barakaldo y Sestao.

I. KAPITULUA

CAPÍTULO I





1. arloa: Estatuaren laguntzak ez diren dirulaguntzak (No minimis)

Área 1: Subvenciones que no constituyen ayudas de estado (No minimis)

3. oinarria. Dirulaguntzaren onuradunak.

Base 3. Beneficiarias de la subvención.

1. Dirulaguntzen erakunde onuraduntzat jo ahal izango dira, baldin eta ekitaldiaren sustatzaileak badira, honako hauek:

1. Podrán acceder a la consideración de entidades beneficiarias de las subvenciones, siempre que sean promotoras del evento, las siguientes:

a) Kudeaketa turistikoko erakundeak.

a) Entes de gestión turística.

b) Bizkaiko Lurralde Historikoko udalak eta mankomunitateak.

b) Ayuntamientos y mancomunidades del Territorio Histórico de Bizkaia.

c) Bizkaiko turismo-garapenaren esparruan lan egiten duten kapital publiko gehiengoduna duten toki-erakunde publiko eta toki-sozietate publikoak.

c) Entes del sector público local y Sociedades Públicas locales de capital mayoritariamente público que trabajen en el ámbito del desarrollo turístico de Bizkaia.

2. Aurreko atalean adierazitako pertsonak eta/edo erakundeek baldintza hauek bete beharko dituzte dirulaguntzaren onuradun izateko:

2. Las entidades indicadas en el apartado anterior deberán cumplir los siguientes requisitos para obtener la condición de entidad beneficiaria de la subvención:

a) Bizkaiko Lurralde Historikoan sozietatearen helbidea eta zerga-helbidea lurralde horretan izatea.

a) Tener su domicilio social y fiscal en el Territorio Histórico de Bizkaia.

b) Egunean edukitzea zerga betebeharrak, Gizarte Segurantzarekikoak eta dirulaguntzak itzultzeari dagozkionak. Era berean, dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren (aurrerantzean, 38/2003 Legea) 13.3 bis artikularen arabera, 30.000,00 eurotik gorako dirulaguntzetarako, merkataritza-eragiketetan berankortasunaren aurkako neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legearen (aurrerantzean 3/2004 Legea) aplikazio-eremuan dauden pertsonak baino ez badira eskatzaileak, lege horretan aurreikusitako ordainketa-

b) Encontrarse al corriente de sus obligaciones tributarias, frente a la Seguridad Social y por reintegro de subvenciones. Asimismo, de acuerdo al artículo 13.3 bis de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones (en adelante Ley 38/2003), para subvenciones de importe superior a 30.000,00 euros cuando las personas solicitantes sean únicamente personas incluidas en el ámbito de aplicación de la Ley 3/2004, de 29 de diciembre, por la que se establecen medidas de lucha contra la morosidad en las operaciones comerciales (en adelante Ley 3/2004)





epeak bete beharko dituzte.

deberán cumplir los plazos de pago previstos en la citada Ley.

c) Ez egotea Foru Administrazioak ematen dituen dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren (aurrerantzean 5/2005 Foru Araua) 12. artikuluan jasotako debeku-egoeretako batean ere).

c) No encontrarse incurso en ninguna de las circunstancias que establece el artículo 12 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral (en adelante Norma Foral 5/2005).

Baldintza guztiak bete behar dira eskabideak aurkezteko epea amaitzen denean, emakidak eta ordainketak egiten diren unera arte mantendu eta proiektua gauzatu arte ere.

Todos los requisitos deberán cumplirse a fecha de finalización del plazo de presentación de solicitudes, mantenerse hasta el momento de la concesión y los pagos y hasta la finalización de la ejecución del evento.

3. Ezingo dute lehenengo eta bigarren deialdietan parte hartu, ezta onuradun izan ere, honako hauek:

3. No podrán concurrir a la primera y segunda convocatoria, ni resultar beneficiarias:

a) Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauaren 42. artikuluan (aurrerantzean 4/2018 Foru Araua) eta martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuak onartu duen emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bateginaren 23.2 artikuluan adierazitako egoeretako batean dauden erakunde publikoak zein pribatuak.

a) Las entidades públicas o privadas, que están en alguna de las situaciones indicadas en el artículo 42 de la Norma Foral 4/2018, de 20 de junio para la Igualdad de Mujeres y Hombres (en adelante Norma Foral 4/2018) y en alguna de las indicadas en el artículo 23.2 del texto refundido de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y Vidas Libres de Violencia Machista contra las Mujeres aprobado por el Decreto Legislativo 1/2023 de 16 de marzo.

b) Erakunde publikoak edo pribatuak, administrazioaren ebazpen irmo bidez zigortuak izan direnak Tratu berdintasunaren eta diskriminazio ezaren uztailaren 12ko 15/2022 Lege Integralaren IV. tituluan aurreikusitako termino eta epeetan oso larri gisa kalifikatutako arau-hausteengatik.

b) Las entidades públicas o privadas sancionadas por resolución administrativa firme por alguna de las infracciones calificadas como muy graves, en los términos y plazos previstos en el Título IV de la Ley 15/2022, de 12 de julio, integral para la igualdad de trato y la no discriminación.

c) Udal sozietate publikoak, foru-sozietate publikoak edo Eusko Jaurlaritzaren menpekoak, 3.1 oinarrian onartutako

c) Las Sociedades Públicas Municipales, Forales o dependientes del Gobierno Vasco, salvo los entes públicos locales





tokiko erakunde publikoak izan ezik.

admitidos en la base 3.1.

d) Laguntza bat legez kontraktatzat edo barne-merkatuarekin bateraezintzat adierazi duen Europako Batzordearen aurretiko adierazpen baten ondoren laguntza hori berreskuratzeko agindu baten zain dauden pertsonak edo erakundeak.

d) Las personas o entidades que estén sujetas a una orden de recuperación de ayudas pendiente tras una decisión previa de la Comisión Europea que haya declarado una ayuda ilegal e incompatible con el mercado interior.

4. oinarria. *Diruz lagundu daitekeen egitatea.*

Base 4. *Hecho subvencionable.*

1. Diruz laguntzeko egitatetzat hartuko da Bizkaiko Lurralde Historikoan turismoa erakartzeko ekitaldiak egitea, baldintza hauek betez gero:

1. Tendrá la consideración de hecho subvencionable la realización de eventos de atracción turística en el Territorio Histórico de Bizkaia que cumplan los siguientes requisitos:

a) Bizkaiko eskualdeetan eragin sozial eta ekonomikoa izatea.

a) Tengan impacto social y económico positivo en las comarcas vizcaínas.

b) Bizkaiaren posizionamendu turistikoa sendotzen laguntzea.

b) Contribuyan a consolidar el posicionamiento turístico de Bizkaia.

c) Bisitarien eta gaudien kopurua handitzea.

c) Incrementen el número de visitantes y pernoctaciones.

Halaber, beharrezkoa izango da ekitaldiak informazioa izatea erakunde sustatzailearen webgunean, sare sozialetan edo erakundeak duen informazio publikoko beste edozein bitarteko, plataforma edo euskarri digitaletan.

Además, será necesario que el evento cuente con información en la página web de la entidad promotora, redes sociales o en cualquier otro medio, plataforma o soporte digital de información pública con que cuente la entidad.

2. Honako hauek ez dira diruz laguntzeko moduko egitatetzat joko:

2. No tendrán la consideración de hecho subvencionable:

a) Bilerak; merkataritza-aurkezpenak xede dituzten ekitaldiak; hitzaldiak edo hitzaldi-zikloak.

a) Reuniones; eventos que tengan por objeto presentaciones comerciales; conferencias o ciclos de conferencias.

b) Lanerako prestakuntza arautuarekin edo etengabeko prestakuntzarekin lotutako ekitaldiak; udako unibertsitate-

b) Eventos relacionados con formación reglada ocupacional o continua; los cursos universitarios de verano, los actos





- | | |
|--|---|
| ikastaroak, berezko ekitaldi akademikoak. | académicos propiamente dichos. |
| c) Azterlan eta/edo ikerketa zientifikoko taldeen lan-bilerak. | c) Reuniones de trabajo de grupos de estudio o investigación científica. |
| d) Alderdi politikoaren biltzarrak, batzarrak eta bilerak. | d) Congresos, asambleas y reuniones de partidos políticos. |
| e) Edozein motatako sariak ematea baino ez diren ekitaldiak. | e) Eventos consistentes exclusivamente en el otorgamiento de premios de cualquier tipo. |
| f) Herri bateko jaien barruan egindako ekitaldiak. | f) Eventos celebrados dentro de las fiestas de una localidad. |

3. Ez da dirulaguntza jaso dezakeen egitatea izango sexua edo martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuak onartu duen emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bateginaren 3.1 artikuluan jasotako askotariko diskriminazio faktoreak direla-eta diskriminatzailea den jardura.	3. No tendrá la consideración de hecho subvencionable cualquier actividad que sea discriminatoria por razón de sexo o por aquellos factores de discriminación múltiple contemplados en el art. 3.1 del texto refundido de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y Vidas Libres de Violencia Machista contra las Mujeres, aprobado por el Decreto Legislativo 1/2023 de 16 de marzo.
--	--

4. Ez da dirulaguntza jaso dezakeen egitatea izango 15/2022 Legearen IV. tituluan arau-hauste gisa kalifikatutako praktikak erasotzen, suspertzen edo onartzen dituen jardura edo xede betetzea.	4. No tendrá la consideración de hecho subvencionable cualquier actividad o cumplimiento de finalidad que atente, aliente o tolere prácticas calificadas como infracciones en el Título IV de la Ley 15/2022.
--	---

5. oinarria. <i>Dirulaguntza jaso dezaketen gastuak.</i>	Base 5. <i>Gastos subvencionables.</i>
--	--

1. Diruz lagun daitezkeen gastutzat joko dira zalantzarik gabe ekitaldiaren izaerari eta garapen normalari erantzuten dioten eta epearen barruan egin diren beharrezko gastu hauek, betiere indarreko arautegiaren arabera behar bezala justifikatu badira:	1. Se considerarán gastos subvencionables, aquellos que, siendo correctamente justificados de conformidad con la normativa en vigor, se hayan ejecutado en plazo, sean necesarios y de manera indubitada respondan a la naturaleza y al normal desarrollo del evento, que a continuación se indican:
---	--

- | | |
|---|--|
| a) Ekitaldia egiteko eta sustatzeko beharrezkoak diren gastuak. | a) Los gastos necesarios para la realización y promoción del evento. |
|---|--|





- | | |
|---|--|
| b) Lokalen edo beste edozein guneren alokairu-gastuak, betiere erakunde onuradunaren egoitza soziala ez badira. | b) El alquiler de locales o de cualquier otro espacio siempre que no sean la sede social de la entidad beneficiaria. |
| c) Ekitaldia egiteko instalazioak eta zerbitzu teknikoak. | c) El montaje de instalaciones y servicios técnicos para la realización del evento. |
| d) Ekitaldiaren publizitate eta zabalkundeak. | d) La publicidad y difusión del evento. |
| e) Ekitaldia egiteko eskatzen diren aseguruak kontratatzea. | e) La contratación de los seguros exigidos para la realización del evento. |

3. Instrukzio-organoak uste badu gastuen aurrekontua antzeko gastuen merkatuko batez besteko kostuen aldean gehiegizkoa dela, dirulaguntzaren oinarria murriztu ahal izango du gastu-kopurua egokia eta proportzionala izan arte. Murrizten bada, lehenengo eta bigarren deialdien ebazpenean idatziz jasota azalduko da.	3. Si el órgano instructor considerase que el presupuesto de gasto es excesivo en comparación con el coste medio de mercado de gastos de análoga naturaleza, podrá reducir la base subvencionable en la cuantía correspondiente a lo que se considera un gasto ajustado y proporcionado. Si se produjera tal reducción así se recogerá en la resolución de la primera y segunda convocatoria.
---	---

4. Balio Erantsiaren gaineko Zerga (BEZ) diruz laguntzeko moduko gastua izango da erakunde onuradunak benetan ordaindu badu eta ezin badu berreskuratu edo konpentsatu.	4. El Impuesto sobre el Valor Añadido (IVA) será gasto subvencionable cuando la entidad beneficiaria lo haya abonado efectivamente y no lo pueda recuperar o compensar.
---	---

5. Honako hauek ez dira dirulaguntza jaso dezaketen gastutzat joko:	5. No se considerarán gastos subvencionables:
---	---

- | | |
|---|---|
